

*Jolastu eta ikasi  
Elkanorekin*

# *Moluka uharteak*



## Jolastu eta ikasi Elkanorekin MOLUKA UHARTEAK

Gure helburua oso gertu zegoen dagoeneko... Harantz gindoazen horraino heldu ziren bi ontziekin, Trinidad eta Victoriarekin, hegoalderantz nabigatzen, Espezien Uharten bila.

Zenbait egunez nabigatu ondoren, uharte batzuen tontor bolkanikoak ikusi genituen, Molukak ziren! Bertan kanela, piperbeltza, iltzea eta Europan garai hartan estimu handia zuten beste espezia batzuk jasotzen zituzten.



Moluketara 1521eko azaroaren 7an heldu ginen. Tidore uhartean lehorreratu ginen; bertan, Alman-surrek, bertako erregeak, harrera beroa egin zigun, eta uharteetan merkataritzan aritzeko baimena eman zigun, eta bidaiari egiteko arrazoia ziren espezia baliotsu horiek bildu ahal izan genituen.

Tidoren geundela, jakinarazi ziguten hainbat ontzi portugaldar zihoazela bertara, gu atxilotzera. Uhartetik ihes egin beharra zegoen, haiek heldu baino lehen! Arazoa zen Trinidad ontzia oso egoera kaskarrean zegoela, eta konponketak luze joko zuela. Irtenbide bakarra bertan uztea zen.

Azkenik, portugaldarrak heltzear zirela, azaroaren 8an, Victoria ontziarekin itsasoratu ginen, espezia bezala, eta Trinidad ontzia uhartean utzi genuen. Konpondu ondoren, itsasoratu egin zuten, baina etengabeko denboraleek kaltetu egin zuten, eta eskifaiako 17 kideak atxilotu egin zituzten portugaldarrek. Bost urte beranduago, 1527an, Espinosa kapitaina eta beste lau tripulatuak Europara itzuli ziren, eta bertan askatu egin zituzten.



Hori dena ez genekien, ordea, Victoria ontziko kideok, berriz baikinen itsasoan, eta, orainoan, portugaldarrak atzetik genituela, geure bila.